

#DONOSTIA #SAN SEBASTIÁN FESTAK

Ref: SUSPENSIÓN SALIDAS DE OLENTZERO y MARI DOMINGI POR LAS CALLES DE NUESTRA CIUDAD 2020
Erref: 2020 OLENTZERO eta MARI DOMINGI IRTEERAK GURE HIRIKO KALEETAN BERTAN BEHERA

Donostia, 2020ko irailaren 30a

Donostia/San Sebastián, 30 de septiembre de 2020

Lagun agurgarriak:

Lehenik eta behin, denak ondo egotea espero dugu.

Donostian Olentzero eta Mari Domingi irteerei buruz gaur egun hartu dugun erabakia jakinarazteko idazten dizuegu.

Ondo dakizuen bezala, COVID-19ari loturiko murrizketen inguruan Eusko Jaurlaritzak iragan abuztuaren 20an onartu zuen aginduak zuzenean eragiten du bide publikoan egiten diren jai-ekitaldietan eta, zehatzago, ikusleak lagunduta egiten den “desfile” modalitatean gauzatzen diren horietan.

Arauak ondokoa dio, hitzez hitz:

3.15.2 art. Ezin izango da erromeriarik edo musika- edo dantza-erakustaldirik egin espazio irekietan, ez eta bestelako herri-ekitaldirik ere, esaterako, desfile gisako ikuskizun ibiltariak, edo jendeak bide publikoan lagundutakoak

Hori dela eta, gure gizarteak eta bere inguruak jasaten ari den egoerarekin bat etorri eta indarrean dagoen araudia betez, **2020 OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN IRTEERAK GURE HIRIKO KALEETAN BERTAN BEHERA UZTEA** erabaki da.

Ez da erabaki erraza izan baina, halere, bizi dugun ezohiko egoera honen eskariei erantzuten dielakoan gaude.

Hartutako erabakia ulertuko duzuelakoan, har ezazue gure agurrik beroena.

Estimadas amigas y amigos:

En primer lugar, esperamos que todas y todos estéis bien.

Os escribimos para comunicaros la decisión que, a día de hoy, hemos tomado en relación con la celebración de las salidas de Olentzero y Mari Domingi por las calles de Donostia/San Sebastián.

Como bien sabréis, la normativa aprobada desde el Gobierno Vasco el pasado 20 de Agosto en relación con las restricciones derivadas de la COVID19, incide de forma directa en las actividades festivas que se llevan a cabo en la vía pública y más en concreto en aquellas que se celebran en modalidad “desfile” con acompañamiento de público.

La literalidad de la norma indica:

Art. 3.15.2. No se permite la celebración de romerías, exhibiciones de música o baile en espacios abiertos y otros eventos populares, como espectáculos itinerantes de desfile o con acompañamiento de público en la vía pública.

Es por ello que, siendo consecuentes con la situación por la que atraviesa nuestra sociedad y su entorno y cumpliendo con la normativa en vigor, se ha decidido **SUSPENDER LAS SALIDAS DE OLENTZERO Y MARI DOMINGI POR LAS CALLES DE NUESTRA CIUDAD 2020**.

La decisión ha sido difícil, sin embargo creemos que responde a las exigencias del momento extraño que estamos viviendo.

En la confianza de que comprenderéis la decisión adoptada, recibid nuestro más cordial saludo,

DONOSTIA/SAN SEBASTIAN FESTAK



Donostia / San Sebastián Festak
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostia-kultura.eus/festak

